

ZUEK EZ DAKIZUE

Zuek ez dakizue zer den gauero kalenderaren numero bat tatxatzea eta ilun jarioari tiro ezin emana

zuek ez dakizue zer den norbaitek igurikiko digula sinetsi nahi izatea

zuek ez dakizue zer den gizonaren negarra ilunabarra kopetari atxikitzen zaionean

zuek ez dakizue zer den euria

zuek ez dakizue zer den bakarrik egotea bakarrik bakardaderik ere gabe

zuek ez dakizue zer den ezer

zuek ez dakizue ezer

HITZAK: KOLDO IZAGIRRE  
MUSIKA: JOXE PORTELA

ZU MAITATZEA

Zu maitatzea loreak tximinietatik hegan goratzea hamabost urteetako egunkariaz lotsatzea amario zahar batetan itsasoak urratzea izkutuan ikasitako hitzak isilka eskaintzea poema bat izkribatzea zu maitatzea

HITZAK: KOLDO IZAGIRRE  
MUSIKA: JOXE PORTELA

ENE OLATU ODOLDUAK

Ene itsasoko olatu odolduak maitasunaren suteagian zure ezpain zartatuak eta moreztatutak goritzen aritzen dira ezinaren mailuz gauaren ingurearen kontra

HITZAK: MIKEL ARREGI  
MUSIKA: JOXE PORTELA ta  
JUAN ESTEBAN URKIJIO

EKAITZAK

Arimaren barreneko ekaitzak itsas tormentatua izarrik eta ifarrik gabeko mendea haserre negar isila goritzen grina

Beti amore eman eta beti dolore hartu Borondate onaren amoreak emandako doloreak Arimaren barreneko ekaitzak

HITZAK: GABRIEL ARESTI  
MUSIKA: JOXE PORTELA ta  
RAMON GARDEAZABAL

ONDOAN EZ DUT INOR

Ondean ez dut inor bakardadearen itzalak estaltzen nau beraz

lurrari Jainoeti eta euskal herriko zeru gris eta antzuar mintzatuko natzate izan bakar eta dardartiei agian, agian... deusezaren indar eskutu eta latorrei agian, agian, agian... besterik ezan agian-ari mintzatuko natzaio

HITZAK: MIKEL ARREGI  
MUSIKA: JOXE PORTELA ta  
RAMON GARDEAZABAL

CHORTINOAC KATOLAN

Chortinoac katolan Tristeric du cantatzen

Duelarican cer jan cer edan Campoa du desiratzen Ceren, ceren Libertatia ain eder eden.

Kampoko choria So g'ioik katolari; Ahal balin bahedi Hartaric begir'adi, Zeren, zeren libertatia zuinen eder den

HITZAK: HERRIKOIAK  
MUSIKA: INAKI ROBADOR eta  
RAMON GARDEAZABAL

